# GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

# CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2025eko abenduaren 30a**

**Vitoria-Gasteiz, 30 de diciembre de 2025**

Navarra, 2 – 01007 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 017 972 – e-mail: prentsa@euskadi.eus

## Eusko Jaurlaritzak 2026. urterako industriarako lehen laguntza teknologikoak abian ditu

- **Gaurtik aurrera, industria eskatzaileek Hazitek, Elkartek eta Azpitek programen 175 milioi euroak eskuratu ahal izango dituzte, SPRI taldearen plataformatik**
- **I+G+b programak \`Euskadi 2030 - Industria Plana´ren "industria hobea" ardatzaren barruan daude, eta oro har, datozen hilabeteetan argitaratuko diren beste hirurekin batera, 253,26 milioi euro dira guztira**

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailak 2026 urtekoak diren eta euskal industriarako bideratutako lehen hiru laguntzak jarri ditu abian. Hirurak I+G+b arlokoak dira. Zehazki, eskatzaileak SPRI Taldearen plataformatik sartu ahal izango dira Hazitek, Elkartek eta Azpitek programetan, gaurtik aurrera.

Guztira, lehen hiru laguntza hauek 175 milioi euro izango dira. Hazitek programak 119 milioi edukiko ditu Proiektu Eraldatzaileak, Proiektu Estrategikoak eta Proiektu Lehiakorrak egiten laguntzeko; Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko ikerketa, garapen eta berrikuntzako erakundeek Elkartek progamaren 47 milioi eskura izango dituzte, elkarlanean bultzatutako ikerketa egiteko; eta Azpitek programako 9 milioiekin ikerketako azpiegiturak eta ekipamendua erosi, instalatu, berritu eta eguneratzeko baliogarriak izango dira.

I+G+b programak Euskadi 2030 Industria Planaren "Industria hobea" ardatzaren barruan daude, eta oro har, datozen hilabeteetan argitaratuko diren beste hirurekin 253,26 milioi euro dira guztira.

**Hazitek programak 119 milioi eurorekin lagunduko ditu ikerketa-proiektu eraldatzaile, estrategiko eta lehiakorrak**

Horrela, programa honek proiektu eraldatzaile, estrategiko eta lehiakorrak egitea bultzatzen du, guztiak ikerketa industrialaren, garapen esperimentalaren eta/edo saiakuntza eta esperimentazioko azpiegituren arloan, enpresa-sektorean eta \`Euskadi 2030 - Industria Planean´ bildutako lehentasunezko esparru eta sektoreetan.
Deialdiaren zenbateko osotik 43.000.000 euro bideratuko dira izaera lehiakorreko proiektuak finantzatzeko, 50.000.000 euro proiektu estrategikoak finantzatzeko eta 26.000.000 euro proiektu eraldatzaileak finantzatzeko.
Diruz lagundu daitezkeen proiektu-tipologia hauei laguntzak ematea du helburu:

- **Proiektu Eraldatzaileak**

Diruz lagundu ahal izango dira ikerketa industrialeko, garapen esperimentaleko eta saiakuntza eta esperimentazio eraldatzaileko azpiegiturak eskuratzeko proiektuak, bereizgarritzat eta bakartzat jotzen direnak beren ezaugarri eta berezitasunengatik, Euskadi 2030 - Industria Planaren lehentasun estrategikoekin bat datozenak, eta IRABAZI eta HAZI sektore estrategikoetan lehiakortasuna hobetzea dakartenak, bai eta Euskadik potentzia industrial berritzaile gisa duen irudia hobetzea ere.

Proiektu eraldatzaile horiek Euskadin eragin ekonomiko eta estrategiko handia duen industria-lidergoan oinarritzen dira, eta eragin nabarmena sortzen dute euskal ekonomian. 20 milioi eurotik gorako inbertsio eta kostu operatiboekin, kalitatezko enplegua sortzea, enpresa-sarea indartzea edo inbertsioak erakartzea dakarten proiektuak behar dute izan.

Proiektu eraldatzaileek balio katean zehar trakzio efektuak edo beste sektore batzuetako enpresa eta eragileekiko zeharkako sinergiak sortzeko gaitasuna dute, Klusterren Erakunde Dinamizatzaileen (KED) laguntza izanik, ikuspegi integral eta interkonektatu baten bidez egitura eraldaketak sustatuz.

Proiektu eraldatzaileek berrikuntza-maila handia erakusten dute beren eremuko ezagutzaren edo teknologiaren egungo egoerari dagokionez, eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) eragileekin lankidetzan garatzen dira, helburuko sektorean edo merkatuan eraldatzeko ahalmena duten irtenbideak sortuz.
Era berean, diruz lagunduko dira I+G jarduerak, produktu, prozesu edo zerbitzu berriak edo hobeak lortzeko ezagutza erabilgarri berriak sortzera bideratutako proiektu eraldatzaileen saiakuntza- eta esperimentazio-azpiegiturak eskuratzea. Baita, teknologia eraldatzaile berriak integratzea, patente berriak sortzea eta oinarri zientifiko-teknologikoko enpresak sortzea ere (Startups).

- **Proiektu Estrategikoak**

Diruz lagundu ahal izango dira ikerketa industrialeko edo garapen esperimental estrategikoko proiektuak, Euskadi 2030 - Industria Planean estrategikotzat ezarritako sektoreetan kokatzen direnak, baldin eta Ikerketa eta Garapen Teknologiko eta Berrikuntzan lankidetza publiko-pribatua sustatzen badute. Euskal Autonomia Erkidegoko industria trakzio eragina bultzatu beharko dute eta enpresa txiki ertainen parte hartzea zein Horizonte Europa Programan sartzea erraztuaz.

Era berean, proiektu estrategikoetako I+G jarduerak babesten dira, produktu, prozesu edo zerbitzu berriak edo hobeak lortzeko ezagutza erabilgarri berriak sortzera bideratuta, bai eta teknologia estrategiko berriak integratzera, patente berriak sortzera eta oinarri zientifiko-teknologikoko enpresak sortzera ere (Startup-ak). Eta hori guztia enplegua sortzera eta euskal industria sarea dibertsifikatzera bideratuta dago, baita enpresa-lehiakortasuna hobetzera ere.

- **Proiektu Lehiakorrak**

I+G proiektu lehiakorrak dira industria-ikerketara edo garapen esperimentalera bideratutakoak, produktu, prozesu edo zerbitzu berriak garatzeko edo lehendik daudenak nabarmen hobetzeko direnak.

**Elkartek**

Programa honen bidez, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean sartuta dauden ikerketa, garapen eta berrikuntzako erakundeek elkarlanean egindako ikerketa bultzatzen du, sektore estrategikoekin, teknologia giltzarriekin eta zeharkakoekin eta Euskadi 2030 Industria Planeko proiektu eraldatzaileekin bat egiten laguntzeko.

**Azpitek**

Azkenik, Azpitek programarekin, ikerketako azpiegiturak eta ekipamendua erostea, instalatzea, berritzea eta eguneratzea bultzatzen da, sektore estrategikoekin, teknologia giltzarri eta zeharkakoekin eta Euskadi 2030 Industria Planeko Proiektu Eraldatzaileekin bat egiten lagunduko duen ezagutza sortzea errazteko asmoarekin.

Laguntza horiek I+G+b garatzera eta erakunde zientifiko-teknologikoek etorkizunean emaitzak baliozkotu eta frogatzera bideratuta daude. Horretarako, onuradun izango dira Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean egiaztatuta dauden foku anitzeko zentro teknologikoak. Azken helburua da lortutako emaitzen kalitatea indartzea eta haien inpaktu zientifiko-teknologikoa, ekonomikoa eta soziala maximizatzea.

# Gobernu Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordearen osaera berria onartu du

Gobernu Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordearen osaera berria onartu du gaur. Batzorde hori Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari atxikitako kide anitzeko organoa da, baina erabateko autonomia funtzionala du. Batzorde honek Ertzaintzaren edo Euskadiko Udaltzaingoaren barruan eskubideak urratu daitezkeela adierazten duen edozein jokabide edo praktika aztertuko du, ofizioz nahiz alderdi batek eskatuta. Azken helburua da legitimitatea eta herritarren konfiantza indartzea, hau da, polizia-jardunaren gaineko kontrolen neutraltasunarekiko eta objektibotasunarekiko konfiantza indartzea.

2026ko urtarrilean bost urte bete dira Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordea sortu zenetik, eta horregatik onartu zuen Euskadiko Segurtasun Publikoaren Kontseiluak abenduaren 10ean Batzordearen osaera berria. Gobernu Kontseiluak gaur berretsi ditu izendapenak.

1/2020 Legegintzako dekretuak, uztailaren 22koak, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina onartzen duenak bere 18. Artikuluan adierazten duenez, “*Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordea hauek osatuko dute: batzordeburuak eta Gobernu Kontseiluak izendatutako beste bost lagunek, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Kontseiluak proposatuta. Horretarako, emakumeen eta gizonen presentzia paritarioaren printzipioa beteko da, eta hautatuek prestigio aitortua, sinesgarritasuna eta esperientzia izan beharko dute segurtasun publikoaren arloan, zuzenbidean, soziologian, medikuntzan, psikologian, etikan eta antzeko arloetan. Kideen herenak izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko poliziaren eskaletan eta kategorietan egon diren eta orain dauden pertsonen artetik aukeratuak, eta, gutxienez, hamabost urteko esperientzia izan beharko dute kidegoan; kideen beste herenak, berriz, arlo horietan prestigio akademiko aitortua duten langileen artetik aukeratuko dira*”.

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordea batzordeburu batek eta bost batzordekidek osatzen dute, eta kargu guztiak berritzen dira, bat izan ezik, bi urte barru berrituko baita.

Hauek dira Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordeko kide gisa agintaldia amaitzen duten pertsonak:

- Francisco Javier Hernáez Manrique (batzordekidea)
- Estefanía Ocáriz Passevant (batzordekidea)
- José Antonio Nieto Antón (batzordekidea)
- Miren Ortubay Fuentes (batzordekidea)

Era berean, Euskadiko Segurtasun Publikoko Kontseiluak Juan Luis Ibarra Roblesek Batzordeburu izateari uko egin izana onartu zuen.

Horrela, gaur egindako Gobernu Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordearen osaera berria onartu du:

- Enrique Lucas Murillo de la Cueva
- Nieves Martínez de Antoñana

- Marta Aldanondo Garaizabal
- Santiago Ron Cruzelegui
- José Antonio González Saiz

Gainera, José Julio Gonzalez Zamanillok Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordeko kide izaten jarraitzen du.

Batzordeak berak hautatuko du, osoko bilkuran, zer batzordekide izango den batzordeburua.

Batzordeko kideak bost urterako izendatu dira eta ez dute inolako lansaririk jasoko beraien lanaren truke. Izendapen berri horiek urtarrilaren 14an argitaratuko dira Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta orduan sartuko dira indarrean.

Jarraian, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordeko kide berrien curriculumak zehazten dira:

**Enrique Lucas Murillo de la Cueva**

**Ikasketak:**

- Zuzenbideko lizentziatura.
- Zuzenbideko doktoregoa.
- Unibertsitateko katedraduna: Konstituzio Zuzenbidea eta Teoria Politikoaren Historia EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean.

**Lan-esperientzia:**

- Irakaskuntza- eta ikerketa-esperientzia handia (1981-2018) Estatuko unibertsitate publiko eta pribatuetan: irakasle titularra, masterrak eta doktoregoak, besteak beste.
- Argitalpen eta artikulu ugari.
- Estatuko eta nazioarteko kongresuetara aurkeztutako komunikazioak eta hitzaldiak, eta emandako ikastaroak eta mintegiak.
- Estatuko Administratzaile Zibilen Kidegoko kidea.
- Antolakuntza eta Zuzendaritzako aholkularia. MECen (Ministerioa) Zuzendaritza Probintziala Palman.
- Langileen Araubide Juridikoaren Programaren zuzendaria. Langileen eta Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusia. MEC (Ministerioa)
- Eusko Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria. Lehendakaritza, Araubide Juridikoa eta Autonomia Garapen Saila.
- Eusko Jaurlaritzako Araubide Juridikoaren idazkari nagusia.
- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren presidentea.
- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko kidea, gaitasun aitortua duten legelarien txandan.
- Diziplina Batzordeko kidea.
- Datuak Babesteko Batzordeko kidea, jurisdikzio-eremuan Kontrol Agintaritza izateko.
- 2024ra arte, jarduneko abokatua.
- Fernando Pombo Fundazioko patroia 2024ko urtarriletik

Beste merezimendu eta aintzatespen profesional eta akademiko batzuez gain.

## Nieves Martínez de Antoñana Blanco

**Ikasketak:**

- Politika Zientzietan lizentziatua
- Zuzenbidean lizentziatua

**Lan esperientzia:**

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Goi-mailako teknikarien kidegoko funtzionarioa, Zuzenbideko A 2 taldea.

- Justizia Saileko teknikaria.
- Justizia Saileko zerbitzu-arduraduna.
- Lehendakaritzako Informazio eta Azterlanen zuzendaria.
- Lehendakaritzako Azterlan eta Araubide Juridikoaren zuzendaria.
- Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko arlo-arduraduna.
- Datuak Babesteko Euskal Bulegoko idazkari nagusia.
- Lehendakaritzako Araubide Juridikoaren zuzendaria.

## Marta Aldanondo Garaizabal

**Ikasketak:**

Zuzenbidean lizentziatua. Legeak interpretatzen eta aplikatzen espezializatua

**Lan esperientzia:**

- Ikerketaren arloan 20 urteko esperientzia duen ertzaina.
- Urola-Kostako ertzain-etxeko Ikerketako komisariordea
- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako atxiloketa-prozesuari buruzko barne-hezitzailea, jardunbide egokiak eta kalitate-irizpideak sustatuz.
- Epaileekin eta fiskalekin harreman operatiboa izatea sarrerak eta erregistroak eskatzeko, eginbideak behar bezala izapidetzen direla ziurtatuz.
- Atestatuak egiteko lanak gainbegiratzea, horien zorroztasun teknikoa eta ezarritako prozedurak betetzen direla bermatuta.
- Esperientzia esparru judizialeko administrazio-lanetan.

## Santiago Ron Crucelegui

**Ikasketak:**

- Zuzenbidean lizentziatua.
- "Doctor Álvaro Navajas" praktika juridikoko diploma, ICAGIk emana.

**Lan-esperientzia:**

- Jarduneko abokatua.
- Gipuzkoako Abokatuen Elkargoko Gobernu Batzordeko kidea.
- Legelarien Euskal Kontseiluko kidea.

## Jose Antonio Gonzalez Saiz

**Ikasketak:**

- Zuzenbidean lizentziatua
- Doktorego-ikastaroak.

**Lan-esperientzia:**

- Karrerako magistratua, gaur egun Euskadin destinoa duena, Administrazioarekiko Auzien Salan. Hirugarren Atalaren buru da.
- Kantabriako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko eta Espetxe Zaintzako epailea.
- Kantabriako Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Salako kidea.
- Bilboko Lan Arloko epaile magistratua.
- Bilboko epaileen dekanoaren lan-arloko ordezkaria.
- Masterreko irakaslea Kantabriako Unibertsitatean.
- Kantabriako Abokatuen Elkargoko Praktika Juridikoko Eskolako irakaslea.
- Gai juridikoen instruktorea funtzio publikoko hautagaiei (besteak beste, polizia-izangaiei) eta poliziei.
- Kantabriako Udaltzaingoaren Eskualdeko Eskolako irakaslea.

**Jose Julio González Zamanillo**

**Ikasketak**:

- Industria Kimikaren ingeniari teknikoa.
- Bide Prestakuntzako irakaslea.

**Lan-esperientzia:**

- 38 urte eta erdi Bilboko Udaltzaingoan.
- Segurtasun Alorreko komisario burua. Lantaldearekin batera, Bilboko ekitaldi handiekin lotutako polizia-operatiboak planifikatu, gainbegiratu eta gauzatu ditu, bereziki aipatu behar da "Tour de France Grand Dèpart 2023".
- 1999tik 2023ra arte, hainbat jakintza-arlo eman ditu Bilboko Udaltzaingoaren Akademian.
- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin lankidetzan aritu da hainbat ikastarotan, Bide-segurtasuneko eta Lidergoko irakasle gisa. Polizia-lanarengatiko bereizgarri urdindun domina.

# El Gobierno Vasco lanza las primeras ayudas tecnológicas de 2026 para la industria

- **Las industrias solicitantes podrán acceder a los 175 millones de los programas Hazitek, Elkartek y Azpitek desde la plataforma de Grupo SPRI a partir del martes 30 de diciembre**
- **Los programas de I+D+i están enmarcados en el Eje "Mejor Industria" del Plan de Industria Euskadi 2030 y en su conjunto, con los otros tres que se publicarán en los próximos meses, suman 253,26 millones de euros**

El Departamento de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad ha puesto en marcha las tres primeras ayudas para la industria vasca correspondientes al año 2026 y las tres corresponden al ámbito de la I+D+i. Concretamente, las solicitantes podrán acceder a los programas Hazitek, Elkartek y Azpitek desde la plataforma de Grupo SPRI a partir del martes 30 de diciembre.

En total, estas tres primeras ayudas suman 175 millones de euros destinados a apoyar la realización de Proyectos Transformadores, Proyectos Estratégicos y Proyectos Competitivos, con los 119 millones del programa Hazitek; la realización de investigación colaborativa, llevada a cabo por las entidades de investigación, desarrollo e innovación integradas en la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación de Euskadi con los 47 millones del Elkartek y; la adquisición, instalación, renovación y actualización de infraestructuras y equipamiento de investigación con los 9 millones del programa Azpitek.

Los programas de I+D+i están enmarcados en el Eje "Mejor Industria" del Plan de Industria Euskadi 2030 y en su conjunto, con los otros tres que se publicarán en los próximos meses, suman 253,26 millones de euros.

**Hazitek apoya proyectos de investigación transformadores, estratégicos y competitivos con 119 millones de euros**

Así, este programa impulsa la realización de proyectos transformadores, estratégicos y competitivos, todos ellos en materia de investigación industrial, desarrollo experimental y/o infraestructuras de ensayo y experimentación, en el sector empresarial y en los ámbitos y sectores prioritarios enmarcados en el Plan de Industria - Euskadi 2030.
Del importe total de la convocatoria se destinan 43.000.000 euros para la financiación de los proyectos de carácter competitivo, 50.000.000 euros para la financiación de los proyectos de carácter estratégico y 26.000.000 para los proyectos transformadores.
Tiene por objeto otorgar ayudas a las siguientes tipologías de proyectos subvencionables:

- **Proyectos Transformadores**

Serán subvencionables los proyectos de investigación industrial, desarrollo experimental y adquisición de infraestructuras de ensayo y experimentación de carácter transformador y considerados diferenciales y únicos por sus características y particularidades, alineados con las prioridades estratégicas del Plan de Industria –

Euskadi 2030, y suponen la mejora de la competitividad en los sectores estratégicos IRABAZI y HAZI y de la imagen de Euskadi como potencia industrial innovadora.
Estos proyectos transformadores se basan en un liderazgo industrial con alto impacto económico y estratégico en Euskadi, generando un impacto significativo en la economía vasca, con inversiones y costes operativos superiores a 20 M€, que impliquen la creación de empleo de calidad, el fortalecimiento del tejido empresarial, o la atracción de inversiones.

Los proyectos transformadores tienen capacidad para generar efectos tractores a lo largo de la cadena de valor o sinergias transversales con empresas y agentes de otros sectores, contando con el apoyo de las Organizaciones Dinamizadoras de Clústeres (ODCs), promoviendo transformaciones estructurales mediante un enfoque integral e interconectado.

Los proyectos transformadores muestran un alto grado de innovación en relación con el estado actual del conocimiento o la tecnología en su ámbito, y se desarrollan en colaboración con agentes de la Red Vasca de Ciencia Tecnología e innovación (RVCTI), generando soluciones con potencial transformador en el sector o mercado objetivo.
También se subvencionarán las actividades de I+D, la adquisición de infraestructuras de ensayo y experimentación de los proyectos transformadores orientadas a crear nuevos conocimientos útiles para obtener nuevos o mejores productos, procesos o servicios, así como integrar nuevas tecnologías de carácter transformador, crear nuevas patentes y empresas de base científico-tecnológica (Startups).

- **Proyectos Estratégicos**

Serán subvencionables los proyectos de investigación industrial o desarrollo experimental de carácter estratégico enmarcados en los sectores establecidos como estratégicos en el Plan de Industria – Euskadi 2030, que fomenten una colaboración público-privada en Investigación y Desarrollo Tecnológico e Innovación, de forma que ejerzan un efecto tractor sobre la economía del País Vasco, favoreciendo la intervención de las pymes y el acceso al Programa Horizonte Europa.
De igual forma, se apoyan las actividades de I+D de los proyectos de carácter estratégico orientadas a crear nuevos conocimientos útiles para obtener nuevos o mejores productos, procesos o servicios, así como integrar nuevas tecnologías de carácter estratégico, crear nuevas patentes y empresas de base científico-tecnológica (Startups). Y, todo ello, orientado a la creación de empleo y a la diversificación del tejido empresarial vasco, así como a mejorar la competitividad empresarial.

- **Proyectos Competitivos**

Se consideran proyectos de I+D competitivos aquellos dirigidos a la investigación industrial o desarrollo experimental para desarrollar nuevos productos, procesos o servicios o que permitan mejorar considerablemente los ya existentes.

**Elkartek**

Con este programa, el Gobierno Vasco apoya la realización de investigación colaborativa, llevada a cabo por las entidades de investigación, desarrollo e innovación integradas en la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación de Euskadi, que contribuya al alineamiento con los sectores estratégicos, las tecnologías clave y transversales y con los Proyectos Transformadores del Plan de Industria Euskadi 2030.

**Azpitek**

Por último, con Azpitek, se impulsa la adquisición, instalación, renovación y actualización de infraestructuras y equipamiento de investigación, facilitando la generación de conocimiento que contribuya al alineamiento con los sectores estratégicos, las tecnologías clave y transversales y con los Proyectos Transformadores del Plan de Industria Euskadi 2030.

Estas ayudas están orientadas al desarrollo de la I+D+I y la futura validación y demostración de sus resultados, a realizar por parte de las entidades científico-tecnológicas. A tal efecto, serán beneficiarios los centros tecnológicos multifocalizados acreditados en la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación. El objetivo último es reforzar la calidad de los resultados obtenidos y maximizar su impacto científico-tecnológico, económico y social.

## El Consejo de Gobierno aprueba la nueva composición de la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco

El Consejo de Gobierno ha aprobado, hoy, la nueva composición de la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco, un órgano colegiado adscrito al Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco, pero que tiene plena autonomía funcional. Esta comisión se encarga de estudiar, tanto de oficio como a instancia de parte, cualquier conducta o práctica en el seno de la Ertzaintza o Policía Local de Euskadi que apunte a una posible vulneración de derechos. Su objetivo final es reforzar la legitimidad y la confianza de la ciudadanía en la neutralidad y objetividad de los controles sobre la actividad policial.

En enero de 2026 se cumplen cinco años de la creación la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco y es por ello que el Consejo de Seguridad Pública de Euskadi aprobó el pasado 10 de diciembre la nueva composición de la Comisión. Unos nombramientos ratificados, hoy, por el Consejo de Gobierno.

Tal y como se define en el artículo 18 del Decreto Legislativo1/2020, de 22 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Policía del País Vasco, la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco estará compuesta por "*la persona que ostente su presidencia y otras cinco personas nombradas por el Consejo de Gobierno a propuesta del Consejo de Seguridad Pública de Euskadi, atendiendo al principio de presencia paritaria de mujeres y hombres entre personas de reconocido prestigio, solvencia y experiencia en áreas tales como la seguridad pública, el derecho, la sociología, la medicina, la psicología y la ética. Una tercera parte será nombrada entre personas que pertenezcan o hayan pertenecido a escalas y categorías de la Policía del País Vasco con una antigüedad mínima de quince años en el Cuerpo, y otra tercera parte entre personal que cuenten con reconocido prestigio académico en las áreas citadas*".

La Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco está compuesta por una presidencia y cinco vocalías y se renuevan todos los cargos salvo uno, que se renovará dentro de dos años.

Las personas que finalizan mandato como miembros de la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco son:

- Francisco Javier Hernáez Manrique (vocal)
- Estefanía Ocáriz Passevant (vocal)
- José Antonio Nieto Antón (vocal)
- Miren Ortubay Fuentes (vocal)

Asimismo, el Consejo de Seguridad Pública de Euskadi aceptó la renuncia de Juan Luis Ibarra Robles como presidente de la Comisión.

Así, el Consejo de Gobierno celebrado hoy ha aprobado la nueva composición de la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco:

- Enrique Lucas Murillo de la Cueva
- Nieves Martínez de Antoñana
- Marta Aldanondo Garaizabal
- Santiago Ron Cruzelegui

- José Antonio González Saiz

Además, continúa como miembro de la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco José Julio Gonzalez Zamanillo.

La persona que presida la Comisión de Control y Transparencia será elegida, entre sus integrantes por la propia comisión.

Las y los miembros de la Comisión han sido nombrados para un período de cinco años y no percibirán retribución alguna por su trabajo. Estos nuevos nombramientos entrarán en vigor el 14 de enero tras su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

A continuación, se detallan los curriculums de las y los nuevos miembros de la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco:

**Enrique Lucas Murillo de la Cueva**

**Estudios:**

- Licenciatura en Derecho.
- Doctorado en Derecho.
- Catedrático de Universidad: Derecho Constitucional e Historia de la Teoría Política en la Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación de la EHU.

**Experiencia profesional:**

- Amplia experiencia docente y de investigación (1981-2018) en diversas universidades del Estado, públicas y privadas: profesor titular, masters y doctorados, entre otros.
- Numerosas publicaciones y artículos.
- Diversas comunicaciones y ponencias presentadas a congresos de carácter estatal e internacional, además de cursos y seminarios impartidos.
- Ingreso en el Cuerpo de Administradores Civiles del Estado.
- Asesor de Organización y Dirección. Dirección Provincial del M.E.C. en Palma de Mallorca.
- Director de Programa de Régimen Jurídico de Personal. Dirección General de Personal y Servicios. M.E.C.
- Director de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento. Departamento de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico. Gobierno Vasco.
- Secretario General de Régimen Jurídico del Gobierno Vasco.
- Presidente de la Comisión Jurídico Asesora de Euskadi.
- Vocal del Consejo General del Poder Judicial por el turno de juristas de reconocida competencia.
- Miembro de la Comisión Disciplinaria.
- Miembro del Comité de Protección de Datos para el ejercicio de la condición de Autoridad de Control en el ámbito jurisdiccional.
- Abogado en ejercicio hasta 2024.
- Patrono de la Fundación Fernando Pombo desde enero de 2024

Además de otros méritos y reconocimientos profesionales y académicos.

**Nieves Martínez de Antoñana Blanco**

**Estudios:**

- Licenciada en Ciencias Políticas
- Licenciada en Derecho

**Experiencia profesional:**

Administración autónoma del País Vasco. Funcionaria del cuerpo superior facultativo, grupo A2 Derecho.

- Técnica del Departamento de Justicia.
- Responsable de Servicio del Departamento de Justicia.
- Directora de Información y Estudios de la Presidencia Lehendakaritza.
- Directora de Estudios y Régimen Jurídico de Lehendakaritza.
- Responsable de área del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales.
- Secretaria General de la Agencia Vasca de Protección de Datos.
- Directora de Régimen Jurídico de Lehendakaritza.

**Marta Aldanondo Garaizabal**

**Estudios:**

- Licenciada en Derecho. Especialización en interpretación y aplicación de leyes

**Experiencia profesional:**

- Ertzaina con 20 años de experiencia en el ámbito de la investigación.
- Subcomisaria de Investigación en la Ertzain-etxea de Urola-Kosta
- Formadora interna sobre el Proceso de la Detención en la Academia de Policía y Emergencias del País Vasco, fomentando buenas prácticas y criterios de calidad.
- Contacto operativo con Jueces y Fiscales para la solicitud de entradas y registros, asegurando la correcta tramitación de diligencias.
- Supervisión en la elaboración de atestados, garantizando su rigor técnico y el cumplimiento de los procedimientos establecidos.
- Experiencia en labores administrativas en el ámbito judicial.

**Santiago Ron Crucelegui**

**Estudios:**

- Licenciado en Derecho.
- Diploma de práctica jurídica "Doctor Álvaro Navajas" impartido por el ICAGI

**Experiencia profesional:**

- Abogado en ejercicio.
- Miembro de la Junta de Gobierno del Colegio de la Abogacía de Gipuzkoa.
- Miembro del Consejo Vasco de la Abogacía.

**Jose Antonio Gonzalez Saiz**

**Estudios**:

- Licenciado en Derecho
- Cursos de Doctorado.

**Experiencia profesional:**

- Magistrado de carrera, actualmente, destinado en Euskadi en la Sala de lo Contencioso Administrativo. Preside su Sección Tercera.
- Juez de Primera Instancia e Instrucción y de Vigilancia Penitenciaria de Cantabria.
- Vocal de la Sala de Gobierno del TSJ de Cantabria.
- Magistrado-Juez de lo Social de Bilbao.
- Delegado en lo Social del Decano de los Jueces de Bilbao.
- Profesor de Máster en la Universidad de Cantabria.
- Profesor en la Escuela de Práctica Jurídica del Ilustre Colegio de Abogados de Cantabria.
- Instructor de temas jurídicos a aspirantes a la función pública (entre ellos, a aspirantes policía) y a policías.
- Profesor en la Escuela Regional de Policía Local de Cantabria.

## Jose Julio González Zamanillo

**Estudios**:

- Ingeniero Técnico en Química Industrial.
- Profesor de Formación Vial.

**Experiencia profesional:**

- 38 años y medio de servicio en la Policía Municipal de Bilbao.
- Comisario Jefe de la División de Seguridad. Junto con el Equipo de Trabajo ha planificado, supervisado y ejecutado los operativos policiales relacionados con los grandes eventos en Bilbao, con especial mención a la "Grand Dèpart del Tour de France 2023".
- Desde el año 1999 hasta el año 2023 ha impartido diferentes áreas de conocimiento en la Academia de la Policía Municipal de Bilbao.
- Ha colaborado con la Academia de la Policía Vasca y de Emergencias en varios cursos como profesor de Seguridad Vial y de Liderazgo.
- Medalla al reconocimiento de la labor policial con distintivo azul.